



## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Aurretik aipatu dugun bezala, Kuku aplikazioa sortuko dugu, eta gure ezaugarri nabarmenduenetako bat bezeroei **harreman zuzena** eskainiko diegula izango da, nahiz eta **automatizatua** ere izan aplikazioaren barnean liburuak, bideoak, ... agertuko direlako. Internet bidez produktu edo zerbitzu batzuk eskainiko ditugu, hau da, aplikazio baten bidez. Bezeroarekin zuzenean bertan komunikatuko gara **arreta pertsonalizatuari** begira, hau da, psikologoekin egoera deserosoa pairatzen duten momentuan hitz egiteko, bakoitzak psikologo pertsonalizatu bat izango du, bere beharrianak ahalik eta hoberen ase ahal izateko. Abantaila bezala ikusten dugu **ez dagoela bitartekaririk** eta horrek arazoak saihesten ditu. Kanpoko Banaketa kanalik ez dugu beharko, guk eskaintako zerbitzu guztiak **online** izango direlako eta guk sortutako materiala izango delako dena.

X izeneko negozio ideia Ezagutzera emateko **sare sozialak** erabiltzea ideia ona ikusten dugu, **Z belaunaldia** dela eta. Bizi garen mundu berri honetan sare sozialak ezinbestekoak direnez, hainbat aplikazio erabiliko ditugu, hala nola, TikTok  eta Instagram  kontuak sortuko ditugu. Aplikazio hauetan dauden adituekin kontaktuan jarriko gara, Gure zerbitzuari buruz publizitatea egiteko -. Historietan agertzen diren bideoen edo reelsen bidez, hau da, instragamen igotzen diren 15 segundoko bideoetan igoko lukete gure aplikazioaren informazioa. Bideoetan gure webgunea zertan datzan eta nola erabili azalduko da, modu labur eta erraz batean. Garrantzitsua iruditzen zaigu gure **bezeroekin harremana zaintzea eta etengabe lantzen egotea, beraien beharrianak** ahalik eta hoberen asetzeko. -

**Udaletxeekin** (gure diru iturri nagusi bat izango delako) eta **ikastolekin/institutuekin** (hitzaldiei begira) harremana ere zuzena izango da. Beraiekin **modu presentzial** batean jokatu dugu, hitzorduak jarritz eta gure nahiak aplikazioari begira azaldu ahal izateko. Modu berritzaile batean aurkeztuko dizkiegu gure ideiak, **poster** deigarri baten bidez, non bertan gure ideiak modu informatibo batean agertuko diren. Informazioa deigarriagoa izateko dena eskematikoki jarriko dugu, esaldi laburrak eta argazkiak erabiliz. Poster horien adibide bat "[hau](#)" izango litzateke, hor klikatuta eredu ikusi dezakezu. Bestalde, aurkezpena egitean gure **esperientzia pertsonaletan** oinarrituko gara.

Egia da beste elkarte batzuekin ere lan egingo dugula informaziorik zehatzena lortzeko eta psikologoak lortzeko momentuan **osakidetzaren aliantza** behar izango dugulako. Baina **beti zuzeneko harremana mantentzen**, hori delako gure aplikazioa beste aplikazio batzuetatik desberdintzen gaituena..

Laburbilduz, gure eskuetan dauden komunikazio kanal guztiak erabiliko ditugu ahalik eta zerbitzu hoberena eskaini ahal izateko gure bezeroei. **Kuku proiektuak** funtzionatzen duenaren arabera aurretik aipatutako tresnen sailkapena egingo dugu jakiteko zeintzuk diren eraginkorragoak bezeroei begira.